



EUROPAKO ESKUALDEETAKO LEGEBILTZARREN X. BILTZARRA (EELB) Osoko bilkura

Venezia, 2006ko urriaren 30 eta 31

Azken adierazpena

2006ko urriaren 30 eta 31n Venezian egindako Europako Eskualdeetako Legebiltzarren X. Biltzarrean parte hartu duten eta ondoren zerrendatu ditugun eskualdeetako lehendakariak,

Toscana	Rheinland-Pfalz
Veneto	Gaztela eta Leon
Friuli Venezia Giulia	Kanariak
Piemonte	Galizia
Bolzano	Asturias
Puglia	Madril
Emilia Romagna	Aragoi
Liguria	Extremadura
Lazio	Kantabria
Marche	Errioxa
Trentino-Alto Adige	Gaztela-Mantxa
Umbria	Euskadi
Abruzzo	Andaluzia
Sardinia	Nafarroa
Sizilia	Murtzia
Deutschsprachige Gemeinschaft	Valentzia
Communauté française de Belgique	Kärnter
Wallonie	Voralberg
Régions de Bruxelles Capitale / Brussels	Wien
Hoofdstedelijk Gewest	Salzburgo
Vlaanderen	Steiermark
Baden Württemberg	Oberösterreich
Bayern	Niederösterreich
Mecklenburg Vorpommern	Burgenland
Schleswig Holstein	Açores
Hamburg	Madeira
Brandenburg	Wales / Cymru
Berlin	Åland

honako adierazpena adostu dute:



Eratu zenetik hamar urte igarota, Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarra gustura dago Europaren batasunerako bidean izandako aurrerapenekin. Alabaina, ezin dugu ahaztu aurrerapen horiek ez direla nahikoak Batasuna hedatzetik eratorritako erronkei eta Batasuneko erabakietan gehiago parte hartzeko eskariei erantzuteko. EELBk 2001ean Madeiran egindako balioespena baieztatzen du: Europa eraldatzeko prozesuaren arrakasta Europako herritarren erabateko babesa izatearen mendekoa izango da.

Premisa horretatik abiatuta, ezinbestekoa da Batasunak are bilakaera handiagoa izatea, gardentasun handiagoa bermatzeko helburuarekin eta herritarrek eta horien estatuko, eskualdeko nahiz tokiko ordezkariak erabakiak hartzerakoan zuzenean parte hartzea gehiago errazteko xedearekin, betiere herritarra Europara gehiago hurbiltzeko asmoz. Bestalde, nahitaezkoa da Europako erakundeak gehiago irekitzea herritarrei eta beren ordezkariak izatea Europaren bozeramaile eskualdeetan eta herrietan, herritarrek Europarekiko lotura handiagoa senti dezaten.

Eskualdeetako legebiltzarrok osatutakoa da herritarrengandik hurbilen dagoen esparru politikoa. Beraz, erreferente erabakitzailerak gara iritzi publiko europarra osatzeko garaian. Europako herritarrak ordezkatzeko erakunde demokratiko gisa dugun erantzukizunetik abiatuta, Batasunaren etorkizunari buruzko erabakiak hartzerakoan parte hartzeko aukera aldarrikatzen dugu, hori ezinbestekoa baita herritarrek Europa eraikitzeko prozesuan esku hartzea ahalbidetzeko.

Batzarraren ustez, aginte legegilea duten eskualdeetako legebiltzarrek interesdun zuzen izan behar dute Europa eraikitzeko prozesuan eta estatu kide berriak Batasunean barne hartzeko prozesuan. Legebiltzar horiek estatu kide berri horietako eskualdeen esku jarri behar dute eskualde-demokraziaren, herritarrak ordezkatzearen eta legebiltzarren funtzionamenduaren inguruan izandako esperientzia osoa.

Horrezaz gain, Batzarraren aburuz, are gehiago aurreratu behar dugu eskualdeetako legebiltzarren eta Europako erakundearen arteko elkarriketan, batez ere legebiltzarren arteko lankidetzari dagokionez.

Testuinguru honetan, honakoak adierazi nahi ditu Batzarrak:

Subsidiariorotasuna eta parte-hartzea

“Lehendakariak subsidiariorotasun-printzipioaren aplikazio koherentea babesen dute, hori zalantzarik gabe aitortzen baitute indarrean diren itunek. Herritarrek parte hartzea ahalbidetzen duenez, subsidiariorotasun-printzipioa garrantzi bizikoa da prozesu demokratikoan. Europar Batasunak bere egiazko agindua gogoratu behar du. EBk nazioaren, eskualdearen edo tokiko mailan egoki arautu ezin denaren inguruko legeak bakarrik egin behar ditu. Horrela bakarrik hartu ahal izango dira erabakiak modu eraginkorrean eta herritarrengandik hurbilago egonda. Adierazitakoa bat dator St. Pölten-en 2006ko apirilean subsidiariorotasunaren inguruan egindako biltzarrean lortutako adostasunarekin.



Subsidiariorotasun-printzipioa betetzen dela eraginkortasunez kontrolatzea ahalbidetu behar da. Printzipio horren izaera kontuan izanik, kontrol hori ez da Europaren mailan bakarrik gauzatu behar. Eskualdeetako legebiltzarrek osatutakoa da hiru erabaki-mailatatik baxuena (Europa, estatu kidea eta eskualdea), eta hori dela eta, beraiei dagokie bereziki subsidiariorotasun-printzipioaren kontrola.

Lehendakariak gogo onez hartu dute Batzordeak 2006ko irailaren 1ean abian jarritako prozedura berria. Horren arabera, Batzordeak zuzenean ematen die legebiltzar nazionalak proposamen eta kontsulta guztien berri, beren iritzia eskatzeko helburuarekin. Hori guztia bat dator 2005eko urriko Kataluniako Adierazpenean lehendakariak egindako eskaerarekin. Lehendakariak espero dute eskualdeetako legebiltzarrei prozesu horretan parte hartzeko gonbitea egingo zaiela, estatu kideetan bertan. Hartara, eraginkortasunez eta dagokionean eman ahal izango dute Batzordearen dokumentuei buruzko iritzia. Parte-hartze horren ezaugarriak dagokienez, lehendakariak Kataluniako Adierazpenean agertu zituzten beren eskariak. Lehendakariak Batzordeari eskatu nahi diote kontuan hartzeko, behar bezala, eskualdeetako legebiltzarren jarrerak biltzen dituzten adierazpenak.

Azkenik, lehendakariak aditzera eman nahi dute gustura daudela subsidiariorotasunaren inguruan kontsulta egiteko sarearen probak direla eta. Horiek udalek eta aginte legegilerik ez duten eskualdeetako gobernuek ere egin dituzte. Horrez gain, Batzordeari eskatzen diote aipatutako proben emaitzak aztertzeko, eta espero dute inolako gorabeherarik gabe egingo dutela aurrera pixkanaka subsidiariorotasunaren inguruko sareari dagozkion lanek.

Aginte legegilea duten eskualdeen zeregina

Batzararen ustez itunen eranskin izango den protokolo batean geratu behar du jasota aginte legegilea duten eskualdeen eta horien organoen —legebiltzar, gobernu eta gainerako erakundeak— konstituzio-zereginak.

Aitortza horrek berriazko prozedurak ekarri beharko ditu berekin, besteak beste, aginte legegilea duten eskualdeetako legebiltzarrek Europako Justizia Auzitegira jotzeko eskubidea, beraiei dagozkien auziak direnean tarteko. Aitortza horri jarraiki, beren barne-antolaketa eraberritu beharko dute Batasuneko organoek eta, bereziki, Kontseiluak eta Eskualdeetako Batzordeak, eta Europako legebiltzarren arteko lankidetzan parte hartzeko mekanismoak aldatu beharko dira, eskualdeetako legebiltzarren eta Europako Legebiltzarren arteko harremanak garatzeko.



Legebiltzarren zeregina Europar Batasunaren eraikuntzan

Batzarraren ustez, estatuetakoko legebiltzarrekin eta Europako Legebiltzarrekin batera, Europa eraikitzeko prozesuko ezinbesteko tresna dira eskualdeetako legebiltzarrak. Prozesu horretan legebiltzarren arteko lankidetzaren printzipioak izan behar du nagusi. Printzipio horri begira, ezinbestekoa da hiru legebiltzar-mailak antolatzea eta koordinatzea: Europakoa, estatukoa eta eskualdekkoa. Hortaz, 2001ean Madeiran onartutako adierazpenarekin bat etorri, egokia litzateke:

- I. Europar Batasuneko estatuetakoko eskualdeetako legebiltzarren zeregina indartzea, Europako prozesurako lotesleak diren erabakiak onartzen eta gauzaten dituzten esparru guztietan eskualdeek esku hartuko dutela bermatzeko, hori ezinbestekoa baita. Horretarako, legebiltzar nazionalekiko loturak sortu eta sendotu behar dira.
- II. Europako legebiltzarren arteko foroak (Estatu Legebiltzarretako Lehendakarien Batzarra, EGEOB eta legebiltzarren arteko foroak) eskualdeetako legebiltzarrei irekitzea.
- III. Itunen eranskin izango den protokolo baten bidez onartzea Batasuneko erabakiak hartzeko prozesuan eskualdeetako legebiltzarrek izango duten zeregina.

Legebiltzarren zeregina herritarrekin eta hedatzearekin zerikusia duten gaitan eta bizilagun berriekiko elkarriketa

Batzarraren ustez, Europar Batasuneko legebiltzarrek —Europako Legebiltzarrak, legebiltzar nazionalek eta estatu kideetako eskualdeetako legebiltzarrek— zeregin erabakitzailea izan behar lukete herritarrei Batasuna hedatzearekin eta Batasuneko estatu kide berriekiko, bizilagun berriekiko eta horien eskualdeetako legebiltzarrekiko elkarriketarekin zerikusia duten gaien berri emateko garaian.

Lehentasunezko helburua ahaztu gabe —alegia, eskualdeetako legebiltzarrek EBko erabakiak hartzeko garaian zeregin eta eragin iraunkorra izateaz arduratzea—, honakoak babesten ditu EELBk:

- 2007an Europako eskualdeetako legebiltzarretako lehendakarien/ordezkarrien foroa egitea, eskualde-demokraziaren inguruan eta legebiltzarrek izan beharreko funtzionamenduaren inguruan, betiere estatu kide berrien eta bizilagun berrien ordezkarrien parte-hartzea oparoa izango dela bermatzen bada.
- Herritarrari informazioa ematea helburu duten ekimen nabarmen guztiak, herritarrek Europaren batasun-prozesua ulertzeko eta horretan parte hartzeko.
- Europan demokrazia sustatzea eta legebiltzarrek europarra izateko sentimendu komuna islatzeko eta eraikitzeko zeregina bultzatzea helburu duten ekimen nabarmen guztiak, nazioetako eta eskualdeetako legebiltzarren, Europako Legebiltzarren eta Europako Kontseiluko Legebiltzarren parte-hartzea izango dutenak.



- Deszentralizazioaren eta eskualdetzearen inguruko eskumenak dituzten erakundeekiko elkarrizketa eta lankidetzak, zehatzago esateko, Europako Kontseiluarekin eta Europako eskualdeetako elkarteekin izandakoa.
- Kide guztiak gai komunetan sakontzera gogo berotuko dituzten ekimen guztiak. Honakoak ditugu gai horiek: erakunde-eraberritzeak eta goi-ganberetako eraberritzeak, eskumenen banaketa, zerga-federalismoa, herritarrek parte hartzeko mekanismoak, aipatutako printzipioak estatu kide berrietako eta bizilagun berrien eskualdeetan hedatzea...

ප්‍රධාන කරුණු

EELBko lantaldeek —“Subsidiaritasuna”, “Deszentralizazioa, eskualde-demokrazia eta eskualdeen gutuna” eta “e-democracy”— legebiltzarren arteko lankidetzari egindako ekarpen garrantzitsuak nabarmendu zituzten lehendakariak. EELBren aburuz, hausnarketa- eta lan-ondare horri esker, legebiltzarren arteko lankidetzak ekarpen garrantzitsua ari da egiten Europa eraikitzekeko prozesuari, eta bere esker ona adierazi nahi die ekimen horiek sustatzen eta babesten dituzten legebiltzar guztiei.

Halaber, Batzarrak egoki iritzi dio Batasuneko erakundeek —Europako Legebiltzarrak, Europako Batzordeak eta Eskualdeetako Batzordeak— egindako lanari, eta bere ustez egokia litzateke orain elkarrizketa egonkorragoa izatea Kontseiluarekin eta estatu kideekin.

Batzarra pozik dago Eskualdeetako Batzordearen baitan Aginte legegilea duten Eskualdeen Taldea sortu dela eta. Bertan, legebiltzarren babesarekin, beren konstituzio-berezitasunak bete-betean adieraz ditzakete eskualdeetako gobernuek, eta Batzordeak irizpenak prestatzeko garaian berezitasun horiek gogoan izateko premia gogora dezakete.